

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Uztailak 20 73 zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**IÑIGO ARREGI:**  
"Ez naiz autodidakta  
izateaz damutzen"

### UDALEKUAK GOZATUZ



**MODELO  
BERRI-BERRIA**



**MUGARRI**



# SALGAI ATBren KAMISETAK



**G**ure kamiseta eskuratu nahi baduzu, uztailaren 12tik 26ra bitartean, salgai egongo da ATBren bulegoetan. Zatoz.

Ordutegia: arratsaldeko 5etatik 6etara.

Prezioa: 2.000 pezeta.

Galdetu Josune edo Karmelegatik.



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA



## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1,  
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

**Publizitatea eta harpidetak:**  
Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Eukeni  
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo  
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus  
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo  
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,  
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,  
Iñaki Aranburu, Hankamotz,  
Maite Toledo, Atalaitakoan, ASA Taldea.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 7.000 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

**Frankeo kontzertatua:** 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-  
tzien erantzunkizunik.

## Belaunaldi galduaren esperantza

Arrasaten eta -oro har- Euskal Herri osoan garbi egiazta daitekeen fenomeno bat ematen da, diren belaunaldien artean. Inolako dudarik gabe, herriko populazioaren segmento desberdin artean badago bat, non euskararekiko deslotura ia guztiz zeharokoa den: gauregun hogeitamar-berrogeitabost urte inguruko biztanlegoa gutxien euskaldunduta dagoena da. Ez dut errealitate horren azterketarik egingo. Horrela da eta kitto.

“Belaunaldi galdua” dei genezake adin-segmento hori, izan ere gutxitan aurki baidateke gurea bezain antzu eta ilun den antzekorik. Berriro diot, euskarari nagokio. “Borono”tzat hartzen genituen haurtzaroan, beren gaztelera behartuan trebetasunik ez zeukatenak. Hamaika barre egin ditugu guk kalekumeok, baserritik iristen zitzaigun ikaskidearen aurrean, haien espainiera-mordoiloa zela eta. Gu, ordea, “garbiak” ginen.

ATBn emititzen den “Zenbat buru, hainbat aburu” saioan, guri --galduak garenoi- itxaropena ekar diezagukeen egiaztapenez ohartu ahal izan ginen, lehengo astean. Ikasturtearen amaierako eritzi eta

komentarioak jaso nahi genituen zenbait gaztetxorengandik, hain zuzen ere gure seme-alaba diren horrengandik. Eta tituluak dioen bezala, nire kasuan bederen esperantza piztu zidan lau neska-mutilen ekitaldiak.

Jakin badakit, ikastetxeetatik ongi aukeratutako ikasleak bialdu zizkigutena eta ikaslegoaren batz besteko maila ez dela teleaioan aritutakoena izango. Dena den, hori kontuan izanik ere, estrapolazio baikorra egin genezakeela iruditzen zait. Igone, Unai, Leire eta Saioak agertu zituzten usteak eta -batez ere- haien aurkezpenarako erabilitako argitasuna izan ziren nire harrera gehien erakarri zutenak.

Eta gogoratu nuen, atzetik datozkigun neska-mutiko horiek ez dutela gure etsipenaren zama sufritu behar. Eta, sarri, haien eragina emankorrik izan beharrean, eragozlerik atzerakoien bilakatzen garela. Oraingo gazteak, zorionez, gu geure garaian baino jantziago daudela onartu behar dugu...eta zalantzarik gabe, elebidun trebe ditugu. Horretan ere irabazten digute. Belaunaldi galduaren hutsunea betetzeko gertu dauzkagu.

*Josemari Velez de Mendizabal*

**inpresio ona**



**inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak**

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**BERANGO**

*Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atepak*

Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE  
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

**AURRERATZEKO**

**SF**

**AIZKORA**

**AUTOZERBITZUA**

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

**JOSTEKO**

**ARETXABALETA**

**UZTAILEAN**

**OIHAL BEHERAPENAK**

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90  
ARETXABALETA

**Umeak eta ATB**

Eskutitz hau idaztera animatu naiz, badakidalako ATB zein Arrasate Press-eko zuzendaria zarela. Txalogarria deritzot ATB bezalako herri telebista izateari, gure inguruan gertatzen denaren berri zehatza izatea ez dago txarto eta. Arrasate zorionekoa da kontu hauetan.

Edozein modutan, ATBren programazioari begiradaxoa eman eta hutsune nabari eta handia somatu diot. Saio gehienak, guztiak ez esatearren, pertsona heldu edo gazteei begira eginda daude. Hau da, haurrek ez dute ATBn inolako saio erakargaririk aurkituko, horrenbeste mahai-inguru serio eta albistegi artean ez dago eta, eurei bereziki eskaintako saiorik.

Jakina da, haurrek orduak eta orduak ematen dituztela telebistaren aurrean, nahiz eta horrela ez dadin izan ahalegintzen garen. Oporraldiak datozenez eta irailean indarberrituta egongo garenez, ATBk ere, zenbait nobedade izango dituelakoan nago, eta horien artean, umeentzako saioa izatea ez legoke bat ere txarto.

**Santa Barbaran jarlekurik ez**

Gutxitan joan izan naiz Santa Barbara Parkera, baina duela gutxi bueltatxo bat eman eta, hara, jarrita egoteko tokirik ez. Akordatzan alzarate nola, mutikotan, goiko balu horretan arineketaldiak, aintxintxiketaren giten genuen.

Hango parajeak merezi du, zuhaitz-mota piloa: astigararak, zumararak, pagoak, haritzak, palmondoak, etab. Eskolatik urten eta olgetan joaten ginenean halakoak zeunden.

Orain paseatzeko bai, baina lasai egoteko ez!! Jarrita egoteko aukera handirik ez daukagu, lurrean ez bada, behintzat.

Dagokionari bota diot, harrapa dezala eta zurezko jarleku on batzuk egin ditzala eskatuko nioke, parkea udalerrian dago eta udalkide guztion ardura delakoan. Ea ba datorren udazkenerako, hostoak horitzen hasien direneko, bertako aireska freskoa dastatzerik daukagun.


Mendi

J.J.

**Jon Anduezak  
Rikardo Arregi  
Kazetaritza  
saria irabazi**


ARRASATE PRESSEko Jon Andueza kazetariak Andoaingo Udalak eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen duten *Rikardo Arregi Kazetaritza saria* irabazi du Herriko aldizkariak sailean, aldizkari honetan bertan 1989ko azaroaren 3ko 39. zenbakian argitaratutako "Egun bat Elenaren bizitzan" erroportaiagatik.

Lehen aldía izan da ARRASATE PRESSEn argitaratutako lan bat horrelako lehiaketa batera aurkeztu dena, eta ezin harrera hobea izan du. Jonek diploma, oroigarria eta 250.000 ptako saria Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailburuaren eskutik jaso zuen. Zorionak, Jon!





## Arrasate herri garbia al da?



**Joxe Azkarate**  
(jubilatua)

Lorategiak eta kaleak nahiko ondo daudela uste dut, baina hormak oso zikinak, kartelez beteta daude.




**Mari Karmen**  
(etxeoandrea)

Ez dago bat ere garbia, kale zein lorategiak ez daude zainduta, gehiago zaindu beharko lirateke.



**Flora**  
(etxeoandrea)

Ez, txerri hutsak gara. Ni Pablo Uranga kalean bizi naiz eta oso zikin egoten da. Ez dakit umeak ez ote diren gehien zikintzen dutenak.



**Baskaran**  
(jubilatua)

Kale aldea nahiko garbi dago, baina San Andres esaterako, zikin. Segun eta jaiak noiz diren, kalea garbi ala zikin egoten da.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

## Memesa

**79 42 22**

## URRIN

Uribarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24

**KAZOLATAN  
ESPEZIALISTAK**

## KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak Enkuadernazioak*

**GOI PRODUKZIOKO MAKINA BERRIA**

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82 ARRASATE




**BELUN  
taberna**

**Lagunarte bikaina**

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14



## BEHARREZKO TELEFONOAK



### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

### UDALZAINGOA

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZTA

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### GARRIAOK

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
--	----------

## 20 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Cariño he encogido a los niños". 7 eta 10etan. Novedades: "Un tiro por la culata". 10.30etan.
- Barietate ikuskizuna. Marceline i Silvestrek "Miscel-Laries" lana aurkeztuko dute. Monterron parkean, arratsaldiko 8etan. Doan.
- Bertso afaria. AED elkarteak antolatuta, gaueko 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

## 21 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "La guerra de los Rose". 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades: "Un tiro por la culata". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Dantza emanaldia. Turkiako Talde Folklorikoaren dantza emanaldia. Monterron parkean, gaueko 10.30etan.
- Madalenako jaiak.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Madalena.

## 22 IGANDEA

- Zinea: Alai: "La guerra de los Rose". 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades: "Un tiro por la

culata". 5, 7.30 eta 10.15etan.

- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

## 23 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "La guerra de los Rose". 7 eta 9.30etan. Novedades: "Un tiro por la culata". 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

## 24 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "La guerra de los Rose". 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

## 25 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Madalena.

## 26 OSTEAGUNA

- Zinea: Alai: "Abyss". 7 eta 9.30etan.
- Ferrerías kaleko jaiak.
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

OHARRA: Eguraldi txarra eginez gero, Monterron parkeko ekitaldiak, Amala antzokian izango dira.

## ERAKUSKETAK

- Argazki erakusketa. "Gazteak gazteen ikuspegitik" lehiaketan parte hartu duten argazkilarien lanak ikusgai. Monterron kultur etxean, hilaren 22a arte.

## LEHIAKETAK

- Jose M<sup>o</sup> Arizmendarreta V. Lehiaketa. Gaia: "Egungo gizartea diruaren menpeko". Deba garaiko ikasleei zuzendua. Lanak bildatzeko azken eguna azaroaren 6a. Gizabidea fundazioak antolatuta.
- IV. lokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa. Gaia: "Ekialdeko Europaren Aldaketa". Gaztelera eta frantsesetik ezik, beste edozein hizkuntzatatik itzul daitezke lanak. AED elkarteak antolatuta, Arrasate Udalaren laguntzaz.
- Arrasate 90 lehiaketak. Ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia, argazkia eta bideoa. AED elkarteak antolatuta, Arrasateko Udalaren laguntzaz.



**Diru asko ala gutxi,  
ez ondotik pasa,  
ez begiak itxi.**

**Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi.**

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxa: 791489 ARRASATE



**Zeure gogoko altzariak**



## **ARRASATEko UDALA**

**Euskaltegian 1990-91 ikasturtea euskara irakasteko irakasleak hartzeko deialdia**

*Eskatzen da:*

- EGA
- Magisteritza, Unibertsitateko lizentziatu titulua edo diploma edo HABEko habilitazio froga gainditua izatea.

Eskabideak egiteko epea 1990ko uztailaren 27an bukatzen da.

Azterketa Irailaren 4ean, goizeko 9.00etan, Udal Euskaltegian.

Argibide gehiago nahi duenak jo beza Arrasateko Udaletxera.



“ Telebista beti izan da tresna bat kulturak, hizkuntzak eta nazio kontzeptuak sortzeko. Gaur egun, transnacionalizatu egin denez, kultura hori, planteamendu kultural, soziologiko eta linguistiko hori aldatu beharra dago, eta orduan eztabaida horretan gaude, komunikabideek noraino betetzen duten paper homogeneizatzailea edo desberdintasun sortzailea; nik uste dut jokatu behar dutela desberdintasun sortzaileen modura.

(...) Teknologiak, sateliteak, paper hori homogeneizatu egiten dute; sateliteen bitartez hartzailego globalari zuzendutako gauzak egiten dira, eta komunitate txikiak, nazio txikiak eta hizkuntza minorizatuak ez daukate aukerarik beraien programazioa beraien hizkuntzan eta beraien idiosinkrasiarekin lortzeko.


(...) Telebista lokalen presentzia garrantzitsua iruditzen zait, alde batetik lurraldea edo territorio geografikoa markatzeko, baina, gehienbat, komunitatearen zentzu erreala sortzeko”.

*(Edorta Aranak, EHUKo irakasleak Udako Euskal Unibertsitatean)*

“ Alfonso Gorroñogoitia made in Arrasateko exekutibo atipikoa da. Diruak ez dio askorik axola eta bere karguetan enpresa pribatuetan egon diren asko aberastu badira ere, ez du horien inbidiarik. Etxeko armarioetan bi traje gordetzen ditu ‘lanerako uniforme bezala’, eta larunbateroko txikiteoa egiten du koadrilarekin, biharamunean Anboto, Udalaitz edo Degurixa aldean laupabost ordu egiteko. Aurki oporrak hartuko ditu, baina ez du horretarako modako lekurik aukeratuko. ‘Asturiastik Galiziara bidean dagoen Castrol-go auzo batean egon ohi naiz. Nere auzoa bezalakoa da, Gara-gartzaren antzekoa, baina diferentzia batekin: kilometroko hondartza du’ ”.

*(Joxean Agirre kazetariak Euskaldunon Egunkarian)*

**Zergatik antolatzen dituzue elbarrituentzako akanpadak Degurixan?**



Akanpada hauek antolatzen 1975ean hasi ginen. Hasi ginen hiru urteetan Urbian egin genituen, baina ondorengo guztiak Degurixan egin ditugu.

Akanpada hauek, elbarrituak etxetik irteteko antolatu genituen. Jende askok eta askok ez du etxetik irteten, eta komenigarri izan zitekeela pentsatu genuen, euren artean harremanak izateko eta era berean euren ingurugirotik irteteko. Mendian egotea atsegin dutela ikusi dugu bestalde.

*Behar-Zana* elkarteak sortu genuen eta gehienbat aisialdirako ekitaldiak antolatzen aritzen gara, irteerak, akanpadak, etab.

Hasieran, Oñati, Bergara eta Arrasateko jendea etortzen zen. Gerora bailara osora zabaldu genuen eta gaur egun Gipuzkoa osotik datorkigu jendea.

Akanpada Santiago edo San Inazio jaietako zubiak egiten dugu, gehienbat eguraldi ona izaten dela eta, laguntzaileek jai izaten dutelako.

Adin guztietako ehunen bat lagun elkartzen gara eta lau egunak Degurixako artzairen txabolan ematen ditugu.

Aipatu beharra dago, akanpada ez dela doan izaten, baina inork diru arazorik izanez gero, ez du zertan ordaindu behar, Diputazioak laguntzak ematen dizkigulako. Arazo larriena, Degurixara igotzeko autoak lortzea izaten da. Hau dela eta, herritarren laguntza nahitaezkoa izaten da.

*Mikel Altuna*

*Behar-Zana elkarteko kidea*

**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**

**SANIDES**

Parasitoei aurre egiteko  
Insektu narraztiak akabatzen,  
arratoiak barne

**URTEBETEKO GARANTIA**

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

*Lua*

**gozokiak**

*Erdiko kale 8,*

**Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE**



## “Istanbul Bahçelievler folklor derneği”

### Larunbatean Monterron parkean

Turkiako “Istanbul Bahçelievler folklor derneği” taldeak, larunbatean dantza emanaldia izango du Monterron parkean. Talde hau, aisialdia dantza ikasten ematen duten unibertsitate ikaslez osatuta dago eta euren emanaldian, Turkiako kultura aberatsaren mustratxo bat baino ez digute erakutsiko. Turkiako eskualde ezberdinetako dantza, joku, ohitura, melodia eta betiko kultura gordetzea izan da taldearen helburua sortu zenetik. Taldeak dantzaren bidez, Turkiako egitura sozialak erakutsiko dizkigu.

Gizonek dantzatzeko dituzten



dantzak, arin eta ilunak izango dira eta emakumeek dantzatuak berriz, gozo eta geldoak.

Taldeak bereziki Turkiakoak diren musika tresnak erabiltzen ditu emanaldietan, besteak beste, “zur-na”, “davul”, “kaval” eta “saz”a.

## ■ II. Arte Hamabostaldia

Gaur bukatu da II. Arte Hamabostaldian parte hartzeko proiektuak aurkezteko epea. Udaletxean adierazi digutenez, proiektu bat baino ez dute jaso. Edozein modutan, Udaletxean azaldu digutenez, bertan makinatxo bat pertsonak agertu du interesa gaiaren inguruan eta beraz, korreoz proiektuak jasotzea espero dute. “Hamabostaldi taldeak” bere aldetik, hainbat proiektu espero du, artista ugarik bere interesa agertu dio eta.

“Arrasate: bere ingurugiro natural eta urbanoa” da aurtengo Arte Hamabostaldiaren gaia. Iazko ekitaldian ez bezala, aurtengoan kanpoko artistei ere luzatu zaie Hamabostaldian parte hartzeko deia.



### “Gazteak gazteen ikuspegitik”

Arrasateko Gazte Zerbitzuak antolatutako “Gazteak gazteen ikuspegitik” argazki lehiaketan, lehen saria Angel Perez erreteriarren “Plata” izeneko argazkiak lortu du. Bigarren saria Joseba Valles arrasatearrak eskuratu du “Soriasis” argazkiak eta hirugarren saria Agustin Uribarrenentzat izan da “Apaltasunaren poza” izeneko argazkiak. Epaimahiak azken orduan, Ignacio Perez-en “Gau itzalak” argazkiari akzesita ematea erabaki zuen. Argazkian irabazleak saria jasotzen.

Camping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean

**Eco Gasteiz** -en

Cercas bajas 34, GASTEIZ

**PEÑACOB**  
Auto-Eskola

Zarugalde 46,  
79 14 01

ARRASATE

**ORTZI**  
erretegia

Angiozar auzoa  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA



## Herri garbiketa

Cespa enpresari abenduaren 31ean, Arrasateko garbiketaren adjudikazioa bukatuko zaio. Aurtten beraz, lehiaketa deialdia egingo da hurrengo urteetan herriko garbiketaz arduratuko den enpresa kontratatzeko. Arrasateko Udalaren gobernu batzordeak, konkurtsoan parte hartuko duten enpresei eskatuko zaizkien betebeharrak zehaztu berri ditu.

Arrasateko garbiketaz arduratuko den enpresak, nahi eta nahi ez, kaleak, paperontziak, eskolak, merkatua, auzoak eta putzu septikoak garbitu beharko ditu.

Hurrengo urteetan, kale garbiketetan elementu mekanikoak erabiltzea eskatuko da.

Enpresak nahi izanez gero, Udalaren edukiontzia, erreka, kiroldegiak, pintadak eta etxeetako hormen garbiketaz arduratzeko aukera ere izango du.

Gaur egun herriko garbiketak 54 milioiko aurrekontua du. Hurrengo urteetan aurrekontua askoz handiagoa espero da, zerbitzuak ere gehitu egingo direlako.



Arazoak gaingiduta, lortu du Osakidetzak berrikuntzak egiteko baimena

## Obra baimena Osakidetzari

### *Ospitalean eta Anbulategian zenbait berrikuntza*

Arrasateko Udalaren azken Gobernu-Batzordeak, Osakidetzari Eskualde Ospitalean eta Anbulategian zenbait berrikuntza egiteko baimena eman zion. Berrikuntza lan hauek, Ospitaleak eta anbulategia dituzten behar larri batzuk konpontzeko egingo dira, Ospitalearen beheko solairuan eta anbulategiko hirugarren solairuan hain zuzen.

Gogora dezagun, duela hilabete inguru Arrasateko Udalak obra hauek egiteko baimena ukatu ziola Osakidetzari, arazo urbanistikoak zirela medio. Osakidetzak hasierako proiektuari aldaketa sakonak egin ondoren, Udalak lanak egiteko baimena ematea erabaki du.

Edozein modutan, behin betiko baimena lortzeko Osakidetzak lanen egitasmo teknikoa aurkeztu behar dio Udalari.

Eskualdeko Ospitaleko zuzendaria, Blanca Roncalek, garbi adierazi nahi izan du, berrikuntza hauek ez dutela zerikusirik, Eskualde Ospitalea eta anbulategia eraberritzeko dagoen planarekin. Arrasateko Udalak, berriz, lan hauek eraberritzearen hasiera izango ote diren susmoa du.

Jakina denez, Osakidetzak ez du Arrasaten Ospitale berririk egin nahi, gaur egungoa eraberritzearekin, bailarako osasun egoera konponduko delakoan dago eta. Arrasateko Udala eta Deba Garaiko Udal Elkarteak, ostera, ez dira eritzi berekoak eta Ospitale berria eraikitzea eskatu zioten Osakidetzari, euren ustetan ezinbesteko bait da bailarako osasun egoera hobetzeko. Hau da, beraz, Osakidetzari eta Arrasateko Udalaren arteko tirabiren arrazoia.



**Arrasateko  
jatetxea**

Olarte kantoia 3,  
Tfnoa: 79 84 53

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

GARIBAI 3,  
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE





Udalak Gelmari eskatu dion orubea

## Oraingoz garabi zerbitzurik ez

### Gelmak ez dio utzi nahi terrenorik Udalari

Arrasateko Udalak ekainaren lehen onartu zuen Garabi Zerbitzua arautuko duen araudia. Udalaren asmoen arabera, zerbitzuak San Juan jaietan ekingo zion lanari. Garabiak jasotako autoak, Gelma enpresak Ertzaindegiaren alboan duen solairuan gordeko ziren. Dena prest zegoela zirudien, Ertzaintzak zainduko bait zituen autoak, Gelmak terrenoak uzteko prest zegoela azaldu zuen eta. Edozein modutan, Arrasateko Udalak Gelmari ingurugiroa kutsatzearen espedientea zabaldu

ondoren, enpresak orubea ez diola Udalari utziko azaldu du.

Edozein modutan, Udalean adierazi digutenez, enpresarekin sortutako tirabirak konpontzea espero da eta irailerako zerbitzuari ekiteko behar duten orubea izatea.

Garabiak jasotako autoen jabeek 5.000 pta.ko isuna ordaindu beharko dute autoa berreskuratzeko. Motoak berreskuratzeko berriz, 1.500 pta.ko isuna ordaindu beharko da. Garabiak kamioia eramanez gero, berriz, isuna 20.000 pta.koa izango da.

#### ■ Casinoa itxita

Arrasateko Casino elkarteak bazkide guztiei jakin arazi nahi die uztailearen 23tik abuztuaren 31a arte itxita egongo dela. Casino elkarteak eraberritze lanak egingo ditu eta beraz, aipatutako egunetan itxita egongo da.

#### ■ PESAk ordutegia aldatu

PESAK, Arrasatek Donostiara-ko goizeko lehen autobusaren ordutegia aldatu du aste honetan. Aipatutako autobus zerbitzua orain arte, Arrasatera 7.45etan heltzen zen; udaldian berriz, ordutegia aldatu eta Arrasatek 7.30etan abiatuko da.

## Usteak uste...

Bi dira dagoeneko azken hilabete honetan errepidean hil diren zikloturista arrasatearrak. Bateren batek edozein astegun buruzuritan hil direla pentsa lezake, baina ez. Biak asteburuetan hil dira, teoriarik behintzat trafiko gutxien dagoen egunetan eta biak automobil edo kamioi batek harrapatuta.

Besteren batek hemen trafiko kontuak nola dauden ikusita, askoz ere istripu gehiago gerta litezkeela esan lezake, eta ez litzaioke arrazoirik faltako. Azken urteetan, tren desagertu zenetik batipat, gure errepideetako zirkulazioa ikaragarri gaiztotu da. Lehen trenez eramaten zen garraio astuna errepideetara pasatu da.

Arrasate-Bergara bizikletaz edozein lanegunetan egitea abentura hutsa da, heriotzera eramanez dezakeen abentura.

Urte luzeetan automobilak errepidean jaun eta jabe izan dira. Sasoi batean apenas zegoen zikloturistik. Orain, berriz, txirinduzaletasuna zabalduz doa eta bai batzuk zein besteok ikasi egin behar dugu elkarrekin bizitzen. Autozaleok txirindulariak errespetoz tratatu eta azken hauek zuhurtasunez ibiliz. Ertzaintzak hartu beharko litzuzke zenbait neurri festa egunetan adibidez, kamioiak autopistetara desbideratuz, edota larunbat-igande goizetako zirkulazio goiztiar arriskutsu hori kontrolatuz. Txirindulariek, bestetik, euren segurtasunaren kontzientzia sakonagoa hartu beharko lukete eta buruak esate baterako, ondo babestu.

Joxe Aranzabal

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispes 2,  
Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



## IBARRA Garajea S.A.



EBRO  
NISSAN

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua





Bake Epaitegia lekuz aldatuko?

## Laguntzak Bake Epaitegientzat

### Eusko Jaurlaritzak dekretu berria kaleratu

Euskal Lurralde Autonomoko Bake Epaitegietan eragin handia izan dezakeen dekretu berria kaleratu du Lehendakaritza eta Justizia sailak. Dekretuak Bake Epaitegia duten herriei emango zaizkien dirulaguntzak zehazten ditu, beti ere herriek duten bizilagunen arabera.

Arrasateri, dekretuak zehazten dituen dirulaguntzen arabera, 305.000 pta. dagozkie, 7.000 bizilagun baino gehiago ditu eta.

Bake Epaitegian berrikuntzak eginez gero, ostera, gastuen %35eko dirulaguntza emango zaizkie. Hala ere, dirulaguntzak eman baino lehen

epaitegien egoera aztertuko da.

Dekretuak, Arrasaterentzat interresgarri izan daitekeen xedapen gehigarria dakar. Arrasateko Bake Epaitegia, Aldaigaineko etxebizitza batean dago. Dekretuak ematen dituen laguntzei esker Bake Epaitegia Justizi Ministeritzak Ignacio Zuloagan duen lokalera pasa daiteke.

Aldaketa honek, abantaila ugari ekarriko liguke arrasatearroi, gaur egungo Bake Epaitegira joateko eskailera ugari igo behar bait da eta Ignacio Zuloaga kaleko lokala herriko edozein lekutatik erraz ailegatze-ko moduan dago.

### Markos Perez, bergarar insumisoa kalean

Alcala de Henares-eko kartzelan bi hilabete t'erdi egin ondoren, joan den asteko ostiralean libre utzi zuten Markos Perez insumiso bergararra. Larunbatean, jende ugari bildu zen Bergarako Martin deunaren enparantzan, kartzelatik irten berriari ongi etorria emateko. Ongietorri ekitaldian, Markos-ek han bildutakoek eskerrak eman zizkien, bere askatasuna lortzeko burutu dituzten ekintzengatik.

### Ur, zabor-bilketa eta estolderiaren errolda

Ur, zabor-bilketa eta estolderiaren gaineko tasari dagokion errolda, hamabost egunetan jendeaurrean egongo da. Interesatuak, kontuhartzailetzako bulegoetan aurkez ditza-kete erreklamazioak.

### JAIOTZAK

Mugarza Barquero *Jabier*.  
Uztailaren 10ean.  
Moñux Txintxurreta *Xabier*. 15ean.  
Arizaga Iparragirre *Urko*. 15ean.  
Pagadai Zenitagoia *Amets*. 23an.

### EZKONTZAK

Arturo Sanchez Donoso & M<sup>a</sup> Almudena  
Bragado Marin 7an Elizaz.  
Francisco Fernandez Galan & M<sup>a</sup> Jose  
Espinosa Arrotxa. 14an. Elizaz.  
Florentino Alonso Cabezuelo & Felisa  
Rey Temeiro. 14an. Elizaz.  
Juan Juaquin Velar Alberdi & Marta M<sup>a</sup>  
Arzamendi Balerdi. 15ean. Zibilez.



### Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea  
A. Otalora doktorea  
A. Estomba doktorea  
M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren  
diagnostiko goiztiarra, bular patologia,  
zitologia, menopausia, haurdunaldiaren  
kontrola, antzutasuna, sexologia etab.*


Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE





Urkuluko urtegia

## Urkulu Zain Dezagun

### Urkuluko ingurugiroa zaintzea helburu

Duela hiru-lau hilabete sortu zen Urkulu Zain Dezagun batzordea, Urkuluko urtegiak eta bere inguru-neak aspaldian jasaten duen degradazioa geldiarazteko helburuaz. Batzordea, Aretxabaletako Amilotx taldeak, Ekik, Eguzkik eta Aretxabaleta eta Urkulu inguruko auzokideek osatzen dute.

Euren helburua Urkuluko ingurunea zaintzea izanda, dagoeneko zehaztuta dituzte euren ustetan hartu beharko lirakekeen neurri batzuk. Lehenik eta behin, Urkulura joaten

diren auto kopurua mugatu nahi dute. Aretxabaletako Udalarik Urkulurako errepidean, espaloiak jartzea eskatuko diote eta Urkuluko urtegiaren sarreran aparkalekuak egitea, urtegi bertara berebilak sar ez dadin. Horrez gain, Urkulu bera ehiza babeslekua bada ere, inguru guztia eremu babestua izatea eskatuko dute. Batzordearen ustetan, Urkulun itxita dagoen harrobiak ingurugiroan kalte handia eragiten du eta Aretxabaletako Udalarik neurriak hartzea eskatuko diote.

### ■ Benito Larrakoetxea hil da

Aita Benito Larrakoetxea, Shakespeare euskaratu zuen fraile latorandarra hil da Oñatin, 96 urte zituela. Asteartean izan ziren hilate elizkizunak. Gerrateari ihesi Wight uhartean babestu ziren umeen zaintzaile izan zen.

### ■ Kooperatiba berria

Lan Kide Aurrezkiaren Enpresaritzak saileko aholkulari eta injinerutzak atalek bultzatuta LKS, *Lan Kide Sustaketa*, kooperatiba sortu berri da. Urtarrilean sortu eta datorren urtean nortasun juridikoa izango du. LKS zerbitzu enpresa izango da eta batez ere, bi arlo jorratuko ditu. Batetik, Injinerutza zerbitzuak eskainiko ditu eta bestetik Aholkularitza zerbitzuak. Kanpazarko tunela eta Arrasatetik Bizkairantz egingo den bidearen lanak LKSren estudiopean daude.

### ■ Globo Rojo kalean

*Globo Rojo* aldizkariaren ale berria kalera berri da. Hau da Santa Ageda Ospitale Psikiatrikoko gaisoek kaleratzen duten aldizkariaren 14. zenbakia Ale honetan, gutunak, poesiak, istorio laburrak, marrazkiak eta denborapasak aurkituko ditugu. Guztira 21 pertsonak hartzen du parte ale honetan. *Globo Rojo* aldizkaria herriko liburu dendetan dago salgai.



## Kirolaren bihotzean.





# Gilen Azkoaga

## Herri batentzako idealista bat

Horrelaxe definitu zuen duela urte gutxi neure lagun batek. Hemen unibertitate publikorik ez izatearren emigratzaera behartutako euskal ikasleen taldeko kide eta bultzatzaile izan zen Madrilan. Politikoeekin ibili eta eztabaidatzen zen -horietako askok gobernuan egon dira edo daude- eta kulturako gizon, idazle, eskultore, musikariek.


Euskaldun sentitzen zen baliabide pazifikoez borrokatuz -hitza, lurra eta inteligentzia, diktadurak zapalduko bere herriaren nortasuna mantentzearen.

Geroago, Bruselasean, Arantzarekin. Gero, itzulia etorri zen. Lan Kide Aurrekia, berak bideratu, sortu eta garatu zuen Udal Elkarte hainbat urtetan eta azkenik, Donostiako Azterlan Europarren Zentrua, erraza Bruselasean defendatzea, baina ezinezkoa etxean. Bidean "Bergarako Alkateak taldeak" kideei laguntza eman eta orientatzearena geratu dira, bereziki Foruak kendu zizkigunetik mendeurrenaren aurrean; analisi politiko konplexuak zituen, lehen hauteskunde-garaian, emaitzak oso zehatz aurrerantz harritura uzten gintuelarik; Euskara berreskuratzeko zuen ardura, batez ere, toponimian; Euskal Herria eskualdetan banatzeari buruzko azterlanak, berak deitu bezala biztanleen "distantzien gogoeta".

Azpimarratu behar da garraioaren

azpiegituari buruzko diseinua lortzearen agertu zuen etengabeko ahalegina.

Kezka handia zuen arduradun politikoei, ondo dokumentatutako kontsiderazio asko eta zehatzez, Foru Aldundien proiektu guztiak baino zerbait gehiago izan zen garraibidea diseinatu behar



Gilen Azkoaga

zela azaltzeko. Berak herriaren bizkarzurra izango zen errepedezko Garraio-Plana gura zuen eta gainera, baldintza onetan Europako ardatzekin bat egingo zuena. Min egiten zioten horrelako gauzek, batez ere pertsona jakin batzuk esanda: "Nazional leko zabaltze-lana". Nazional 1 Bilbo-Iruñea da!, zioen.

Zenbatetan aipatu ote du etsipenez: "Izan ere, ez dira konturatzen; ez dute

Euskal Herria fisikoki ezagutzen". Eta hurrengo egunean, behin eta berriro batzuekin eta besteekin.

Egia esan, neurri handi batean, Gilen Azkoaga kausa galduaren defendatzailea izan da, bizi izan den bitartean behinik behin.

Idealista islada ote?, aurretik joan eta denok baino urrutiago ikusten duena.

Hala ere, kontzientzia lasai zuela hil zaigu. Urte guzti hauetan, ez du etsipenak jo ezta gogorik ezak ere, horretarako momenturik izan badu ere.

Benetako laguna izan da eta ezkuzabala denekin, gizon onek bakarrik duten zer hori zuen.

Kirol trazarik onenaz gogoratzea merezi duela uste dut, gizon kultua eta espiritu zabal eta unibertsalekoa, izenak eta datak gogoratzeko itzeleko buruaz denak harritura uzten gintuena eta bere begiek, musika-pieza bat entzuten zuen bakoitzean, agertzen zuten pozjario-adierazpena.

Zure oroitzapena bizirik gordetzeko gai izango ahal gara, noizean behin hausnartzeko eta jarraitu beharreko bidean laguntzen eta orientatzeko erreferentzi puntu tinkoa. Agur abertzale. Agur adiskide.

Jose Ignacio Garcia Ramos  
(Eusko Jaurlaritzaren Justiziako Sailburuordea)

**BASABE JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
**ARETXABAETA**

**VE ECUADOR**  
Kontzesifio 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**URONDO**  
elektrizitatea



- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

**L** **ARRINGAN**  
auto gidarien eskola  
**KLASE TEORIKOA**  
**IRAKASLEAREKIN**  
Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE





Ataxi, Korta eta Atxa, lora-sorta banaz

## Letona, Korta eta Atxa etxean

### Kartzelatik irten eta gero, asteazkenean agurtuak

Asteartean kartzelatik irten ondoren, asteazkenean heldu ziren Arrasatera Igor Letona "Ataxi", Joseba Korta eta Xabier Atxa. Jende ugari bildu zen Sebero Altube plaza-  
ra, espetxetik irten berriei ongi-  
etoria ematera. Hirurak Leintz-Gatza-  
gan agurtu ondoren, kotxe karaba-  
nan heldu ziren Arrasatera. Arrasa-  
tera Txalapartaren doinu eta jendea-  
ren txaloen artean agurtu zituzten.

Hiru gazteak, izazko irailean Er-  
tzaintzak Arrasaten atxilotu zituen.


Apirilean, Madrilan epaitu ondoren,  
20 hilabeteko gartzela zigorra ezarri  
zieten hirurei talde armatuko kide eta  
lehergailuak edukitzea leporatuz.  
Fiskalak Igor Letona eta Joseba  
Kortarentzat lau urteko kartzela zi-  
gorra eta Xabier Atxarentzat zortzi  
urtekoa eskatu zuten.

Hasiera batean, Carabancheleko  
espetxean egon ziren hirurak, baina  
ondoren, Joseba Korta, Martutenera  
eraman zuten eta Igor Letona eta  
Xabier Atxa, Alcalá Meco-ra.

## Jon Iriberrik liburua kaleratu

Jon Iriberrik, "Larrosak, noi-  
zean behin", liburua kaleratu berri  
du, Erein argitaletxeko poesia sai-  
lean. Jon Iriberrik aspalditik da Ge-  
rardo Markule-  
tak hautatutako  
nortasun litera-  
ria. Kaleratu  
berri duen libu-  
ruan, lau atale-  
tan banatutako  
poesiak aurkitu-  
ko ditugu. Oña-  
tiarra, Donos-  
tian eta Oviedo-  
n burutu zituen  
Espainia eta  
Hegoamerike-  
tako literatur ikasketak. Ordukoak  
dira Jon Iriberriren hastapen lite-  
rarioak, ama hizkuntza gaztelera  
izanik ipuin eta poemak sortzen  
saiatu eta aldizkarietan kaleratzen  
zituen. Euskara berreskuratzea  
pentsatu eta Euskal Filologia ikas-  
ketekin batera, euskal literaturmin  
ariketak egiten saiatuko da.

Arrasate Press-en "Zeuk Sor-  
tua" sailaren arduraduna da eta  
San Viator ikastolan Erdi Zikloko  
zuzendari pedagogikoa.



### ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10,  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

### MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna  
Jatetxea  
Bazkarialak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50

### UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako  
klase bereziak

Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

### KAJOI TABERNA

erdiko kale 22  
tfnoa: 79 32 27









Foto Imagen

Hau bai, hau, *Eguna* astekarian jaso genuen txutxumutxua. Amatiñoren esanetan, *Fagoreko* Nazioarteko Operazioen zuzendaria den **Jesus Larrañaga** arrasatearrak gutuna idatzi dio **Mijail Gorbachov** lehendakari sobietarrari, Euskal Herrira etorri dadin gonbitea luzatuz. Larrañaga kooperatibismoari buruzko hainbat hitzaldi ematen ariua da Moskun, eta sobietarrak Arrasateko esperentziaz erabat interesaturik daudela aprobetxatuz, Mijail gure herrira ekartzeko ahaleginetan omen dabil orain. Zure zain gelditzen gara, Gorbye!

Maiatzaren Sean ezkondu ziren **Juantxo Iñarra** eta **Mertxe Sanz** mondragoetarrak. Senar-emazte berriak Kanarietara joan zitzaizkigun eztaibidaian, Arrasatera bizitzera itzuli aurretik. Aurrerantzean, mila zorion!



Duela bi hilabete argitaratu zen japonieraz, Joxe Azurmendiren 'El hombre cooperativo' liburuaren laburpena. Antza denez, harrিতa daude ekialdeko herrialde hartan Mondragoeko fenomenoaz; eta halaxe gertatu zitzaion **Hideo Ishizuka**-ri ere. Japoniako mugimendu kooperatiboan murgilduta dagoen gizon hau mirestuta gelditu zen On Jose Maria Arizmendiarietaren izpirituaz, eta besterik gabe, liburu honetan batu nahi izan zuen kooperatibismoaren maisu genuen apaizaren pentsamoldea ▶



**AHIZKE-CIM Koop. E.**

ACEIG-FECEIko kidea  
Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana	Haurrak	Maila guztiak
Frantsesa	Gazteak	Azterketarako prestakuntza
Ingelesa	Helduak	Ohizko ikastaroak eta trinkoak
Enpresak		


Araba Etorbidea 4, tñoa: 79 01 32 ARRASATE

**ETXE-AUNDI**  
Dastapen-menua  
uztailaren 27rako

- Ortuari eta ganba-xehakina
- Keztatuen kabia hegaluze-belouté gainean
- Izokin eta erreboilo-abanikoa hiru konpotez
- Mugurdien aparra sagar-horrien gain kanela usainaz.

3.600 pta. BEZ barne  
Torre Auzo 9, Tñoa: 78 19 56  
OÑATI





## izen propioak

◀ “Rikardo Arregi  
 ▶ kazetaritza saria ematerakoan erabakiorra izan da egileak lanerako aukeratutako gaia landu eta mamitzerakoan eskaini dion kazetal tratamendu sakon eta hurbila, eta, bidebatez, lan idatziaren estilo zaindu eta begiratu. Horrela bada, garrantzi handia eman zaio saritutako idazlanari darion naturaltasunari. Herrietako aldizkari batean ezezik, hedapen zabalekoetan ere argitara ahal izango litzatekeen idazlana da”, izan ziren epaimahaiaren hitzak **Jon Andueza** Arrasate Presseko kazetariari saria emateko orduan. Argazkietan, Jon hitz batzuk esaten, eta gainerako irabazleekin, Joxean Agirre, Pello Zubiria eta Aingeru Epalza.

■ **Martxe Arana**, 47, aretxabaletarra, Eibarko Artista Elkartek antolatutako aire zabaleko pintura lehiaketan, lehen saria irabazi zuen eta Mendaroko Udalak antolatutako “Villa de Mendaro” aire zabaleko pintura lehiaketan hirugarren saria. Martxe orain 10 urte hasi zen pintatzen eta hau du bere ogibidea.

■ **Joseba Valles**, 31, arrasatearra. “Gazteak gazteen ikuspegitik” argazki lehiaketan II. saria irabazi du. Josebak San Viator eta Eskola Politeknikoan burutu zituen Maisutza ikasketak. Gaur egun Arrasate Press-eko argazkilaria da eta San Franzisko Xabier Ikastolako ludo-terekin argazkigintza ikastaroak ematen ditu.

■ **Jabi Elduaen**, 23, arrasatearra, Arrasate Telebista, ATBko kameraman berria. Jabik Andoaingo Bideo eta Zine eskolan, produkzio eta errealizazio ikasketak egin zituen. Iazko Arte Hamabostaldian, laburmetraia eta dokumentala egin zituen beste hiru gazterekin batera.

## AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

*Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!*

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan

Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate



# Udaleku irekiak bizi-bizian

## AEDk bostehun neska-mutikoren ardura hartu uztailean

*Amaitu da berriro ikasturtea. Hutsik gelditu dira eskolak.*

*Umeen astialdia nolabait betetzeko, batez ere uztaileko egunetan, AEDk udaleku irekiak abiarazi zituen duela hiru urte.*

*Arrakasta, geroz eta handiagoa. Aurten, adibidez, bi txandatan banatutako bostehun neska-mutiko inguru pasako dira bertatik.*

*Euren ardura eramateko, hogeitamalau begirale ari dira lanean.*

*Eta guztien gaintik helburu bat: haurren arteko eguneroko harremanetan euskararen presentzia sendotzea, indartzea.*

*Iharduerak, nahi beste*

Denetarikoa iharduerak sartu dituzte aurtengo egitasmoan. Goizez hamarretatik ordubata arte, eta arratsaldean lauretatik zazpiak arte. Hor agertzen dira neska-mutikoak tropelean, gora eta behera.

Eguraldiak laguntzen ez duenean, haur-jolasak, eskulanak, eta antzerkia. Aurten ere, aukera ematen zaie herriko hainbat gune ezagutzeko: Udaletxea, Monterroneko Jauregia, ATB, edota Arrasate Press-en ere ohizkoak egin zaizkigu gure lanagatik galdezka datozen haurrak.

Eguraldiak lagun, ordea, mota guztietako irteerak antolatzen dituzte. Bizikletan batzuk, piszinara besteak. Hondartzan ere eman dute egunen bat edo beste, eta mendian, noski.

Mendira gaua pasatzera egindako irteerek, hain zuzen, txalorik be-roenak jaso dituzte haurren partetik



Harreman estuak bigirale eta haurren artean

Honekin, hirugarren aldia da AED Elkarteak uztailean udaleku irekiak antolatzen dituela.

Arrasateko ikastetxe guztietatik etorritako sei eta hamahiru urte arteko neska-mutikoen astialdia betetzeko prestatzen dira. Hamabost eguneko bi txandatan banatu, eta hor ibiltzen dira mota guztietako ihardueratan murgilduta.

### Bostehun haur

Aurten hogei talde osatzea espero bazen ere, azkenean hogeitamar izan ditugu.

Pasa den ostiralean bukatutako txandan hirurehun eta hirurogei neska-mutikok eman zuten izena; astelehenetik hil bukaera arte luzatuko den txandan, ostera, ehun eta hogeitik gora hurbildu zaizkigu.

Adinak kontuan hartuta, hiru talde osatu dira. Txikiak Ferixalekuan, erdikoak Gazteluondon, eta nagusitxoak San Viatorren.

AEDk hogeitamar begirale kontratatu zituen lehenengo hamabost egunetarako; horiez gain, beste lau

pertsona ari dira taldeak koordinatzen. Bigarren txandan, ostera, gutxira hamabi begirale daude.

Arduradun hauek ez dute prestakuntza berezirik jaso, baina gehienak Eskoriatzako Irakasle Eskolakak dira; hau da, umeen munduarekin harremanetan egondako jendea.

### Hiru milioiko egitasmoa

Egitasmoari eusteko, hiru milioi pta. behar izan dituzte. Milioi terdian Arrasateko Udalaren kontu, eta 500.000 pta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandakoak.

Gainontzeko milioia, berriz,

**"Neska-mutikoen artean arrakasta gehien lortu duen aktibitatea, mendira gaua pasatzera egindako irteerak"**

umeek ordaindu beharreko matrikulen bidez batu dute: 2.000 pta. neska-mutiko bakoitzeko.

Gastuei dagokienez, diru kopuru handiena begiraleen soldatak ordaintzeko erabili da. 40.000 pta. eman zaizkie hamabost eguneko lanaren truke.



Helburu nagusia: euskara

Udalekuak antolatzerakoan, alde batetik neska-mutikoeak ondo pasatzea bilatu da; eta antza denez, lortu dute helburua, asko izan bait dira lehenengo txanda bukatu eta bigarrenerako izena eman dutenak.

Dena den, AEDk udaleku irekietan egiten duen apustua, euskararen aldeko apustua dugu. Normalizazioaren bidean, ezinbestekoa da haurrek eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko ohitura har dezatela.

Eta hortik, hain zuzen, abiatzen dira AEDren asmoak: prestatutako iharduera guztietan harremanak euskara hutsean izan bait dira.



Denetariko iharduerak prestatu, bostehun neska-mutiko entretenitzeko bidean

## Umeak gustora daudenean

**E**z da lan erraza izan behar, hilabetez zehar bostehun neska-mutikoren ardura eramatea. AEDren udaleku irekietan, ordea, denboraren poderioz, geroz eta hobeto iritien dira gauzak; egitasmo geroz eta borobilagoa.

Hirugarren edizio honetan, adibidez, ez dute ia inolako arazorik izan. Akaso, lehenengo egunetan begirale berrien deskuidoren bat edo beste.

Oñatin arratsaldea eman eta gero, talde batek bueltako azken autobusa galdu zuen. "AEDra deitu, eta berehala antolatu genuen berebil espedizioa, berrogeita piku haurrak etxera ekartzeko".

Astakilo batek oraindik ere gogoratuko du aizko-rarekin jolasean ibili zeneko eguna. "Denetik egin behar dute, muturra toki guztietan sartu... eta hark behintzat susto galanta jaso zuen. Dena den, berehala moldatu ginen anbulategira eramateko".

Haurrak direla, haurrak. "Sekretua, ekintza entretenigarriak prestatzea da, neska-mutikoei aspertzeko betarik ez ematea. Gustora egon daitezela lortuz gero, ederto pasatzen duzu eurekin".

Hori bai, alderantziz gertatzen bada, asmatzen ez

denean buniko minak nahi beste. "Elementu onak dira adarra jotzeko orduan!".

Ea nortzuekin egoten diren gustorago begiraleak, txikiekin edo nagusitxoekin. "Txikiak errazago betetzen dute esandakoa, lasalago. Hamar urtetik gorakoak deabruagoak dira, baina era berean, aukera gehiago ematen dituzte eurekin harremanak sakontzeko".

Eta noski, historiaren beste aldean protagonista nagusiak aurkitzen ditugu, AEDren udaleku irekietatik pasako diren bostehun neska-mutiko inguru.

Inkesta txikia egin genuen haien artean. Diego Garcia, Nerea Altuna, Xabi Aranzadi, eta abarrekin elkaru, eta guztiak antzeko eritzia eman ziguten. "Iharduerarik zirraragarriena, etxetik kanpora lo egitera joan ginenean. Besteak ere ondo egon dira, baina huraxe izan zen borobilena. Gauean sua egin eta inguruan jolasak egitera batu ginenean...".

Eta guztien ahotan eskari berdina. "Guzti dira hamabost egun. Denbora luzeagoa egitea gustatuko litzaiguke!".

Umeak gustora daudenean, gustora...

**K**ANPAIA  
erretegia


Sukaldari arrasatearrak  
Meagara bidean. GETARIA Tfnoa: 83 04 40

**BRANKA**  
jatetxea

Eguneko menua eta karta



# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzateke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aki berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-laruzko azalak, 24 kilotetako urrez sutan eginak estapanakibekin.
- Landare-hariz jositako plaguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokoposizioa bi zutabelan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnak zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.



**OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)**

**Euskara ikasteko erabili beharreko obra**

**Ernesto Amaia Argitaletxea**  
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO  
 Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93



# Ez naiz autodidakta izateaz damutzen

**Iñigo Arregi, arrasatear pintorea**

**Makinatxo bat urte darama Iñigo Arregik, pinturan buru-belarri murgilduta. Oso gazte zela ekin zion pintatzeari. Lagunak txikiteoan edo igandetako futbol partidua ikusten zeuden bitartean, berak estudioan ematen zuen denbora luzea. Urte guzti horietan Euskal Herriko pintoreekin harreman estuak izan ditu.**

— Arrasate Press: Arantzazuko seminarioan ikasten zeundela Oteizarekin izan zenuen harremana, zer izan zen zuretzat?

— Iñigo: Garai hartan oso gaztea nintzen, sarritan Oteizaren estudioa joaten nintzen eta hantxe hasi nintzen nire lehen arte lanak egiten, eskulturak, alegia. Nik han deskubritu nuen arterako nuen zale-tasuna. Arantzazu garai hartan, Europa mailako abangoardia-gune oso garrantzitsua zen. Han Txillida, Basterretxea, Oteiza eta beste asko elkartu ziren. Momentu hori, han bertan ezagutzea oso garrantzitsua eta aberasgarria izan zen. Nik erreferentzia hori dut.

Gerora, seminarioko bertako pintore batzuk ezagutu nituen eta eskultura utzi eta margotzeari ekin nion. Ondoren egin izan dut eskultura txikiren bat, baina gehienbat pintatzen ari izan naiz.

Arantzazutik irtendakoan, herri guztietako pintura lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen. Euskal Herriko margolariekin harremanetan jarri eta mundu horretan murgildu nintzen buru-belarri.

— Zergatik eman zenuen aldaketa hori, eskulturatik pinturara, hain zuzen?

— Beharbada errazagoa delako. Kontzeptua oso bestelakoa da. Pintura azkarra da. Momentu batean ideia izan eta bozetoa egin zenezake. Eskulturgintzan

berriz, materiala aukeratu etab., egin behar da.

— Autodidakta zaitugu, zuk zeuk nahi izan duzulako ala ikasteko aukerarik ez duzulako izan?

— Arrasaten, Fortunato Bediarekin nahasketak egiten ikasi nuen, baina bestela beti neure kasa ari izan naiz. Bilboko Arte Ederretako eskolara joateko asmoa izan nuen, baina hobeto pentsatu eta azkenean ez nintzen joan. Asmatu egin nuela uste dut, ez naiz damutzen. Ez dut uste eskolara joanez gero, gauza gehiago ikasten duzunik.

Aukeran, alternatibarik onena, beste pintoreekin harremanak izatea da. Bilbora joanez gero, molde batzuetan sartzen zara. Ni margotzen hasi nintzenean, hutsetik hasi



Iñigo Arregi

— Batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Ideia bat islatu nahi duzunean, programatutako zerbait egiten saiatuko zara. Zer egin nahi duzun eta gutxi gorabehera nola bukatuko duzun jakingo duzu. Gauza zientifikoagoa egiten ahaleginduko zara. Beste batzuetan, ordea, momentuko inspirazioaren arabera pintatuko duzu, aurretiaz ezer pentsatu gabe.

— Eta norentzat egiten duzu lan?

eta antzeko esperientziei?

— Oso esperientzia interesgarria da. Erakundeen laguntza era honetako esperientzien bidez bideratu beharko litzateke. Artelekun lanerako azpiegitura duzu, lan berdina egiten duen jendearekin harremanetan jartzeko aukera, etab. Ez dut uste erakundeek dirua eman behar dutenik, baina Arteleku bezalako lekuak bai ordea. Horrelako laguntzak behar dira ez konkurtsoak etab. Lehiaketa gehienak, bestalde, nolabait moldatuta egoten direla uste dut.

Azken urteotan Bilboko Arte Ederretako eskolak Euskal Herriko artearen norabidea markatzen dihardu. Ona zer den eta zer ez den beraiek esaten dute. Jakina, hori horrela izanda, lehiaketak, beraiek jarritako bidea jorratzen dutenek irabazten dituzte. Muga horretatik irteten duenak jai du. Gaur egun, Euskal Herrian oso gauza interesgarriak egiten duen jendea erabat ezezaguna da. Muga horietan sartzen ez direnez, inolako laguntzarik ez dute jasotzen eta gauza guztiak atzera botatzen dizkiete.

**“Erakundeek jartzen dituzten mugetatik kanpo dagoenak jai du”**

nintzen, dena zabalik nuen, edozer egin nezakeen. Eskola batera joanez gero, estiloak, zer baloratzen den eta zer ez, gaur egun egiten dena, etab., irakasten dizute. Erreferentzia batzuk ematen dizkizute eta zuk bat ala bestea aukeratu duzu, baina baldintzatu-ta hasten zara. Nor bere bere kasa hasiz gero, ez du horrelakorik.

— Kuadro bat pintatzean zerbait adierazi nahi izaten duzu?

— Nik neuretzat lan egiten dut. Jakina, beti kanpora zabalduko dela pentsatuz. Garbi dago Udaletxeko kuadroak ez ditudala neuretzat egin, baina normalean ez dut horrela lan egiten. Zenbaite-tan kuadro baten gainean beste bat pintatu izan dut. Ez ditut borrotatu onak ez zirelako, garai bat gailendu dudalako baizik. Lana egin dut, satisfakzio pertsonala eman dit eta ez du inork ikusi.

— Zer deritzezu Arteleku



# Aupa eta agur, Jose Mari!

*Aupa Jose Mari!* izaten zen Zigarrolako mutikoen oihua S. Isidro elizaren inguruetan karrera zegoen domeketan Jose Mari Saiz ihes egin da edo tropelaren buruan zihoan bakoitzean.

Jose Mari geure idoloa zen, gure auzoko txirindularia, gu baino nagusiagoa, baina txikiekin berba egiteko prest edozein momentutan. Entrenatzera joaten zenean ere, aprobetxatu egiten genuen haren korredore bizikleta miresteko. Ez pentsa Jose Mari haserretzen zenik, ez zitzaion inporta inguruan hainbeste ume izateak. Guri ere berdin zitzaigun Jose Mari irabazten ez bazuen; gure idoloa zen, eta kitto!

Denboraren poderioz, Jose Mari utzi egin zuen konpetizioko txirindularitza, eta gu koskortu. Berandua go Amaten ezagutu nuen berriro. Beti bezain atsegin eta lagunkoia, eta lanean serioa.

Neguan mendian, udan errepi-



Jose Mari lagunez inguratutik, kopa eskuetan duela

deetan eta noiz behinka arineketan ere ikusi izan dugu Jose Mari. Kirola maite zuen, eta bizikletan zihoala, akaso kirolik gogokoena beretzat, errepide bazterrean etorri zitzaion heriotza. Orduan ere tropelean zihoan, baina orain beste modu batean, txirinduzalez inguratuta.

Izoztu egin zitzaidan neri odola, idolo eta lagunarena telebistaren pantailan ikusi nuenean. Gizon lasaia joan zaigu betiko, heriotzak eraman digu kolpetik eta abisu barik. Zigarrolako ume koskortuok umezurtz gelditu gara.

Agur t'erdi, Jose Mari!

J. A.M.



## Espainiako promesa txapelketan, J.A. Gay nagusi


Une goxoa ari da bizitzen Jose Antonio Gay. Asteburuan Murtziara hurbildu zen Jose Antonio, Espainiako Promesa Txapelketan 200 metrotako proban parte hartzeko asmoz. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, korritzeko orduan 40 gradu inguru jasan behar izan zituzten eta.

Kanporaketa eta finalerdietan Gay-k marka onenak egin bazituen, finalean ere bera izan genuen nagusi; 22 segundu eta 2 hamarreneko denbora egin eta gero, urrezko domina eskuratu zuen. Ederto!

**E D E L  
TAPIZTEGIA**

**Gortina  
Alfonbra  
Koltza**

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA



**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24



podiuma

**J.L. Etxeberria,  
futbolaren aldeko  
apustua**

*"Futbolean jende gaztea sentitzen da faltan. Ez jokalaria mailan, baizik eta zelaietara animatzera joateko orduan; eta noski, baita zuzendaritza lanetara aire berriak ekartzeko orduan. Gazteak ez dotoz, baina komenigarria litzateke".*

Hitzak Jose Luis Etxeberriarenak dira, azken urte terdian Mondra futbol taldeko lehendakaria izan dugun atxabalarrarenak. Hogeitamañiru urte, inertziatz heldu omen zen Atxabalpeko taldearen kontuak zuzentzera. *"Betik inguruan, laguntzen, betik eskua luzatzen... eta Zubillagak bertan behera uztea erabaki zuenean, inertziatz sartu nintzen lehendakaritzara. Baina ez pentsa, asko erretzen duen lana da".*

Orain arte egindakoaren balorazioa eskatzerakoan, baikor agertzen da Porru. *"Aurretik egon ziren guztiak bezala, lehenik eta behin gure lana eskaini dugu. Bigarrenik, nere uestez argi markatu dugu bidea, norantz joan nahi dugun eta nola".*

Bide horretan, harrobiaren aldeko apustua egin nahi dute. *"Betik etorriko da kanpotik norbait, postu jakin batzuk betetzera. Datorren denboraldirako, adibidez, Alaves taldeko Ruiz, eta Mirandes taldeko Aramaiona fitxatu ditugu; akaso helduko da besteren bat. Baina era berean, harrobiaren emaitzak jasoko dira, Gordobil, Urretxu, Aranguren,*



*etab. bezalako gazteak. Pazientzia behar da, ordea, gazteak erdi epera irabazten den apustua direlako".*

Igertzen zaio, bai. Porru, emonka hori gaintitu nahi duela. *"Hor dago Errealarekin sinatu dugun ituna; urrats garrantzitsua izango da inguru hauetako mutikoei jarraipen egokia emateko, Atxabalpe jarraipen berezi horren agertoki bihurtuko delarik. Eta ez hori bakarrik, hor dago ere AUKEAren borobildutako egitasmoa, irailetik aurrera abiaraziko den futbol eskola. Pello Bengoetxearen ardura-pean, hurbiltzen diren gaztetxoel ahal den guztia erakutsiko zaie".*

Gazteak futboleant, eta gazteak futbolera. Ezin utzi aipatu barik, datorren denboraldian ikasle eta langabetuei bazkide izateko emango zaizkien erraztasunak. *"Hiru mila pezetagatik, urte guztiko parniuduak ikusteko aukera izango dute. Ea animatzen diren, guztion artean berotasuna eman, eta Atxabalpen futbol arraisalde ederrak bizi ditzagun".*

**Mondraren  
Batzarrea**

Hogeitamar lagun inguru bildu ziren astearte arratsaldez Monterronen, Mondra Futbol taldearen Batzar Orokorrean.

Inolako eztabaidarik barik onartu ziren aurkeztutako puntu guztiak. Erabaki aipagarrienak, honako hauek:

Alde batetik, 1990-91 denboraldirako aurrekontuaren onespena. 18.750.000 pta. gastatuko ditu Mondrak datorren urtean: hamar milioi hirugarren mailako taldean, zazpi milioi mutikoz osatutako bederatzi taldeetan, eta beste milioi pasatxo emakumezkoen taldean.

Bestalde, aipatu ere Mondrak akordio berezia sinatu duela Errealarekin. Horrenbestez, datorren denboraldiik aurrera Errealak inguru hauetan ikusten dituen jokalaria gazte interesgarriak Arrasaten bilduko dira entrenatzera, Patxi Agirrezabala Errealeko teknikariaren esanetara. Albiste pozgarria, Donostiarrak barnekaldeko herrietako mutikoak hurbiletik jarraitzeko pausuak ematen ari direlako.

Azpimarragarria da ere Mondrak abiaraziko duen beste erabakia. Horren arabera, datorren denboraldian 19 eta 25 urte arteko gazte ikasle eta langabetuek 3.000 pta. ordaindu beharko dituzte bazkide izateko, orain arte eman beharreko 7.000 pten. ordez. Erabaki borobila, gazteak berriro Atxabalpe bidean jartzeko asmotan.

**Iosu**

**argazki denda**

**Argazkilaritzarako materiala.**

**Erreportaiak.**

**Ikastaroak**

**Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60**

**Hilbera  
kafetegia**

**Uribarri Etorbidea  
ARRASATE**



## Adiorik gabeko agurra

**A**gur esateko garaia iritsi zait. Abuztuko oporraldiaren ostean iritsiko zaizuen Arrasate Press-en agian sail honek jarraituko du edo agian ez, baina ez da ziur neuk idatzia izango. Lan-arazoak direla medio, ez dut gehiago lerro hauek idazteko behar den astirik izango. Balantze egiteko ordua da, beraz.

Esan dezadan, ezer baino lehen, gustora ari izan naizela lan honetan. Ez dugu, jeneralean, euskaraz idazteko aukera gehiegirik izaten, are gutxiago idazten dugun hori argitaratzeko aukerarik. Alde horretatik, Arrasate Press gutariko askorentzat eskola bikaina bilakatzen ari dela esan behar, ez behinik behin nik nahi neurrian. Ez dut askotan informazioa nahi bezain zehatza edo gaurkortua eman ahal izan eta gabezia hori bestelako baliabide batzuekin estaltzen saiatu naiz, derrigorrak



eraginda. Barka beza, beraz, inoiz engainatuxea sentitu den irakurleak.

Dena den, sail monografikoetan ari edo ari izan garen kolaboratzaileok badugu, nire ustez, arazo kezagarri bat. Berez, herriko aktualita-

teari dagozkion sailak dira erakargarrienak irakurlearentzat eta gure "adreilu"ok ez dute -salbuespenak salbu- irakurleago zabalaren arreta lortzen, jarraitzaile hipotetiko leial eta bakan batzuenak baizik. Agian hori da sail hauen betebeharra aldizkariaren osotasunean, ez dakit. Baina idaztea eta argitaratzea pozgarria izan den bezala, argitaratu osteko isiltasuna eta erantzunik eza tristemagarria suertatzen da idazlearentzat. Probatu duenak badaki zertaz ari naizen.

Hala ere, ez dut amaiera tristerik nahi. Arrasate Press lan ikaragarria ari da egiten euskararen alde, Arrasaten eta herritik kanpo. Lan horretan neu ere ari izanak, neurri txikian izan bada ere, zinez pozten du nire euskal bihotza. Zorte on jarraitzen duzuenoi.

*Mikel Intxausti*



# HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*


Zaldispe kalea 10, ARRASATE  
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61  
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Gojain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua  
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53  
Telefax: 45 54 74 AGURAIN





# UDALETXEAK ATEAK ZABALIK!



**Zatoz guztion etxea ikustera.**

**Uztailaren 21ean, larunbata, goizeko 11.00etatik  
arratsaldeko 14.00ak bitartean**



Arrasateko Udala



## Udako oporrak

Oporrek toki berriak ezagutzeko edota ezagunak sakonki behatzeko aukera ematen digute.

Zeintzuk dira ibilaldien bidez gurasook haurrengan bultzatu ditzakegun jarrera baikorrak?

Gauza berriak ezagutzeko jakingura bultzatu (natura, artea...). Gauza berriak aurrez ezagutzen dituztenekin erlazioatzen erakutsi: gonbaraketak egin (berdintasunak, desberdintasunak aurkitu...). Haurrak ikusten (sentitzen) duena adierazteko (kanporatzeko) gaitasuna garatzen lagundu (galderak egin, iradokizunak, asmakizunetan jolastu,...)

Beste kulturak ezagutzen, baloratzten...lagundu.

Gurasook eskolak egiten duena osatu behar dugu, eta ez errepikatu eskolako ariketak (batuketak, fitzak...)

Ariketa hauek egiteko eskolak baliabide gehiago du, baina aipatutako

jarrerak bultzatzeko gurasook baliabide gehiago daukagu:

Mendiko irteerak egiteko, hondartzan jolasteko, herri desberdinak ezagutzeko, biren arteko elkarrizketak izateko...

Hona hemen ohizko ekintza batek (hondartzan jolasten) eskaintzen dituen aukerak:

### Hondartzan jolasten

Hondarra eta bere ezaugarriak (Behatu-esperimentatu-jolastu), urari pasatzen uzten dio (iragazkorra da), hatzamarren artetik ihes egiten du (isurkorra da), lehorra dagoenean ezin zaio formarik eman, bustia dagoenean bai, bustia dagoenean oso astuna da, lehorra dagoenean ez da hain astuna, arinagoa da.

Ura eta bere ezaugarriak (behatu-esperimentatu-jolastu), hondarra baino

isurkorrago da, gazia da, ezin da edan, ez da edangarria, ez du kolorerik, baina itsasoak bai (urdira, berdea...), atzera eta aurrera egiten du hondartzan (ordu desberdinetan toki desberdinetan dago), olatuen punta zuria (aparra), olatuen hotsa, itsasoaren usaina

### Txirlak

(Batu-behata-klasifikatu-experimentatu-jolastu...)tamaina, kolorea, osorik/apurtuak, urak desgastatu edo higituak, margotzen dute harrian/ez dute margotzen (gogortasuna).

Hau adibide txikia baino ez da. Honen bidez adierazi nahi dizuegu, hau eginez hainbat konzeptu landu ditzakegula.

Gauza bera egin daiteke mendian, herri batera egindako bisitan... Zure esku dago!!

*Klarion taldea*

# TURKIAKO Dantza Talde folklorikoen



Uztailak 21, larunbata

Gaueko 10.30etan

MONTERRON  
PARKEAN

Sarrera: 300 pta.






# Alkohola eta gaztetxoak

J oan den astean, alkohola noizbait dastatu duten gaztetxoei buruzko zenbait datu eman genuen. Baina probatu zuten guztiek ez dute gero edaten jarraitu; batzuek utzi egin diote edateari baina askoz gehiagok edaten jarraitu dute.

Dastatu zuten 490 mutiletarik 84 dira kontsumitzeari utzi diotenak, baina 406k (inkestaturikoen % 73,63ak) edaten jarraitzen dute egoera ezberdinetan: asteburuetan, herriko nahiz familiarterko jaietan...

Nesken artean, berriz, 325ek aitortu bazuten noizbait alkohola edan izana, 87k utzi egin zuten gero eta 238k (% 54,58ak) edaten jarraitu dute gero mutilen kasuan aipaturiko egoeratan.

Garagardoa da gogokoen duten edaria eta ez dago dudarik honen kontsumoa gora doala. Gero eta



gehiago dira "litronak" erabiltzen dituztenak. Txapainak jarraitzen dio edarien preferentzian, baina edonola ere, asko dira denetik edaten dutela aitortu dutenak.

Inkestan egindako galderetan, noizbait mozkortu al ziren ere galdeztzen zitzairen. Mutilen artean % 34,12ak eta nesken artean % 18,34ak behin gutxienez mozkortu zirela aitortu zuten. Hau da, 263 gaztetxo horietatik, % 27,15a mozkortu da behin, behintzat.

Baditugu beste leku batzuetako

datuak gurekin alderatzeko. Madrilen egindako ikerketa batean, 4 eta 14 urte bitarteko 12.856 haur ikertu ziren, eta ikasle hauetako % 94,9ak alkohola kontsumitzen zuela aitortu zuen, eta gutxi gorabehera herena zen noizbait mozkortu zela esaten zuena.

Malagan egindako beste ikerketa batean agertzen denez, ikasleen artean %80a da noizbait alkohola dastatu duena, eta OHO bukatu baino lehen %20a gutxienez behin mozkortu dela ikusten da.

Beraz, ez dago datu hauen eta gureen artean alde handirik eta, ezberdintasun txikiarekin, arazoa antzerakoa da leku guztietan.

Hau, jakina, ezin da izan kontso-lagarria guretzat eta derrigorrezkoa da arazo larri honi aurre egiteko neurriak hartzea.

*Eukeni eta Arantxa*



## Arrasateko "San Frantzisko Xabier" ikastola

### JANTOKIRAKO LANPOSTUAK

- Lanpostua: **Sukaldaria**
- Kontratuaren iraupena: 9 hilabete
- Baldintzak: Sukaldari titulua. Elikaduran trebatua. 2 urtetako esperientzia. 6 orduko laneguna Soldata konkretatzeko

- Lanpostua: **Jantokiko garbitasunaren arduraduna eta sukaldeko enplegatua**
- Kontratuaren iraupena: 9 hilabete
- Baldintzak: "Eskola-Graduatua"ren titulua. Honelako edo antzerako lanetan 2 urtetako esperientzia. 4 orduko laneguna. Soldata konkretatzeko

- Lanpostua: **Ikasle eta garraioaren arduraduna**
- Kontratuaren iraupena: 9 hilabete
- Baldintzak: "Eskola-Graduatua"ren titulua. Honelako edo antzerako lanetan 2 urtetako esperientzia.. Euskaraz hitz egin eta idatzi. 2 orduko laneguna Soldata konkretatzeko

- Lanpostua: **Bazkalkideen eta jantokiko arduraduna**
- Kontratuaren iraupena: 9 hilabete
- Baldintzak: Magisteritza titulua. Honelako edo antzerako lanetan 2 urtetako esperientzia. 3 orduko laneguna Soldata konkretatzeko

Lanpostu hauetara aurkeztu nahi duenak, bere curriculum-a, datorren uztailaren 27a baino lehen, ondorengo helbide honetara bildali beharko du:

**SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA**

114 postakubra. Gazteluondo 4, 20500 ARRASATE




# Pirinioetan zehar

Aurten azkenengo bi urteotan bezala, Iruñeko Anaitasuna mendi taldeak Pirinioetako III. zeharbidea antolatu du.

Mediterraneoan hasi, Port Boun eta Kantauri itsaso ertzean dagoen Cabo de Higuier-eraino, Katalunia, Aragoi eta Euskalerrria zeharkatzen duen mendi katea ezagutuaz.

Ibilaldi hau uztailaren 16an hasia da, eta abuztuaren 31 arte irauten du, 6 zatitan banaturik, tarte bakoitza aste batekoa izanda. Pertsona bakoitzak, gutxienez tarte batean parte hartu behar du eta 3 tartetan gehienik. Hau da urte batean ezin trabiesia osoa egin eta hainbat urtetan edo urte bitan izan behar.

Antolatzaileek mendigoizaleei aukera eskaini guran, gogo onez hartu dute prestakuntza eta gauza guzti hauek arduratzen dira: gosa-



ria, afaria, lo egiteko barrakoi erako dendak, norberaren materialen ga-

rraioa, esperientziadun laguntzailerak, eta lehen eta azken eguneko joan-etorriak egiteko autobusa. Dena 19.000 pta. aste bakoitzeko.

Egia esanda, Pirinioetako zeharbidea bapatean egitea eta traste guztiak bizkarrean hartuta, gogorregia da. Berriz, Anaitasunekoek eskaintzen diguten modura, benetan disfruta dezakegu paraje paregabe hauek eskaintzen diguten edertasunaz.

Aurten beranduegi bada ere apuntatzeko, urteoro antolatzen den zeharbidea dugu, eta Besaiden aurkitu dezakezue, zehaztasun gehiago.

Hala ere, nork bere kontura egin izanez gero, mapak, aterpeak, ibilbideak etab.en informazioa Besaiden eskain diezazuekegu.

Besaidetarrak

**12**  
URTE

**LORAMENDI**  
**KIROLAK**



Bete txartel hau eta eraman  
**LORAMENDI KIROLAK**era eta zorte on!

**12. URTEURREN ZOZKETA**

Opariak:  
CAMPING-DENDAK, LOZAKUAK, MOTXILAK, HAMAKAK,  
TXALUPAK, eta RAKETAK

**50 Sari baino gehiago!!!**

Izena .....  
Helbidea .....  
Telefonia .....

Zozketa uztailaren 30ean

I  
R  
A  
T  
I

Ferrerias kalea  
Tfnoa: 79 71 80

**PAZI-OLA SA**

Zaldizpe kalea 2,  
Tfnoa 79 29 91  
**ARRASATE**



# Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

*Poliza aintzindariak.*

**LAGUN ARO**  
SEGUROS ASEGURUAK







Aste gazte

Gaia aztertu dutenek diotenez, gaur egun, eta etorkizunean beste-la gertatuko denik ez dirudi, gazte-riak ez du elkartzeko joera bortitzik: oso gutxi dira gazte elkarte baten kide direnak, edo dauden talde gehienak txikiegiak izanik eta, ideiak berehala ahitzen dira. Aurre-ra jarraitzeko biderik, eskuarterik, egiturarik edo argibiderik ere ez dute izaten.

Zerbait bururatzen al zaizu?

Ikastaro-oporraldia

• "Sua, jolasa eta inguru-giroa". 16 eta 22 urte bitarteko gazteei zuzendua. Abuztuaren 2tik 15era. Tailerrak, eskursioak, astronomia, komunikabideak, paper-birziklapena, argazkigintza, etab. Abioncillo de Catalañazoren (Soria).

Kultur ekintza aipagarriak

• Uztailak 25-30: Portugaleteko XVI. Nazioarteko Folklore Jaialdia (21ean Arrasaten izango dugu Turkiako Folklore-Taldea, Monterronen).

Gipuzkoa jaietan

• Jai bila bazabiltza, hona hemen Gipuzkoatik irten gabe aukera zabalak:

- Uztailak 22: Mutriku, Errenderia, Alegia.
- Uztailak 25: Andoain, Pasai Donibane, Billabona, Aizama-Zestoia, Goimendi-Elgeta.
- Uztailak 26: Mendaro, Arrona Arriba-Zestoa, Ordizia.
- Uztailak 31: Enzoja-Soraluze, Altzo, Azpeitia.

Agroturismo

• Oporrak baserri batean pasatzeko aukera ezin hobea. Interesatua egonez gero, Gazteentzako Informazio Bulegoan informatuko zaitugu.

Bekak

• "Zehazki-Mehazki, Euskadiko Bekak" liburua, Euskadin ateratako beka deialdi guztien bilduma da. Kontsultak, Gazt.Inf. Buleg.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzuan, ☎ 77 00 65

Sustatu'90 Sariak

• Gizarte Zerbitzuen Sustapenaren Euskadi Sariak. Espezializateak: argazkigintza, kazetaritza, irratia, ikusentzunezko baliabideak, ikerketa eta instituzio-lanak. Gaia: Gizarte Zerbitzuak. Lan eta kandidatura guztiak Euskaraz edo Gaztelera zuzendua. Sariak: 3.000.000 eta 75.000 pta. bitartekoak, espezialitatearen arabera. Lanak eta kandidaturak aurkezteko epea: urriaren 31ra arte.

Ekologia

• Nazioarteko Ekologi-Iharraldia, Frantziako Kostalde Atlantikoan. 18 eta 26 urte bitartekoiei zuzendua. Abuztuaren 5etik 26ra. Prezioa (bidaiarik gabe): 25.000 pta.

Lana

• Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko "Lana aurkitzeko oinarrizko gida"ren alerik bat eskuratu nahi izanez gero, pasa zaitez G. Informazio Bulegotik.

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**M A** **ARENAZA**  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA

**F**

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrenas 23,  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

**ARRASATE  
PRESS**

Tfnoa: 77 08 15



**ETXEBIZITZAK**

- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- Torreveijan bungalow-a alokatzen da ekain, uztaile eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47
- Loramendi kalean 6.pisua salgai 80 m2. Amuebletuta. Tfnoa: 79 24 89 (arratsaldez)
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da. Tfnoa: 79 45 74.
- Neska ikasleek pisua behar dugu alokatzeko. Tfnoak: 72 11 43 Begoña, eta 55 45 35 Juana.
- Pisua alokatzen da Erguinen. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 40.000 pta. hilean. Tfnoa: 211225 10etatik aurrera.
- Alde zaharrean etxe merkea erosiko nuke. Deitu goizez edo arratsaldez 77 09 40 tfnora.
- Neska ikasle taldeak alokatzeko pisua behar dugu Arrasaten. Harremanetan jartzeko deitu 69 08 19 tfnora.

**LANA**

- Emakume euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- 18 urteko gazteak udako hilabeteetan edozein lan egingo luke. Tfnoa: 79 51 95.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak 79 98 34 tfnora deitu, arratsaldeko 13.00ak eta 16.00ak bitartean.

- Eskoriatzan klase partikularrak. Mailak: OHoko kurso guztiak. Ek IEE-BBB, euskarazko klaseak ekaina, uztaile, abuztua. Arrazoiak: Tfnoa: 79 17 19. (gaueko 8etatik 10etara)
- Andra, 40-50 urte bitartekoa, etxeko lanak egiteko behar da. Intema. Tfnoa: 79 16 63
- Gazte unibertsitariak udako hilabeteetan OHO ikasten ari diren neska-mutikoei klaseak emango lizkieke. Tfnoa: 79 51 95
- Lizentziatuak klaseak emango lituzke: matematika, fisika eta kimika. IEE, LH, BBB eta OHO. Tfnoa: 79 27 74
- Neska euskaldunak umeak zainduko lituzke udako hilabeteetan. Tfnoa: 79 98 30.
- Ikasle unibertsitariak udako hilabeteetan OHoko klaseak eta IEE-BBBeko ikasleei matematika eta fisikako klaseak emango lizkieke. Tfnoa: 79 52 31.
- Ikasle unibertsitariak klaseak emango lituzke. IEE eta OHO maila guztiak. Tfnoa: 79 37 96.
- 19 urteko gazteak uztailean edozein lan egingo luke. 79 19 82 telefonora deitu.
- Neska euskaldunak, udaran umeak zainduko lituzke. Esperientzia. 42 31 95. Ines. Donostia.

**SALEROSKETAK**

- R 12 egoera onean eta merkea salgai. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- BMW batentzako mailetak erosiko nituzke. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- Idazmakina salgai. Eskuan eramateko modukoa. Ia berria dago, ikasketak uzteagatik saltzen bait da. Tfnoa: 79 54 28. Leire.

- Camping-denda familiarra salgai (4 plaza), hozkailu txiki eta guzti. Deitu 79 24 66 tfnora.
- 90 zm-ko bi ohe, bi gaumahi eta 1,60 m-ko armairua salgai. Egoera onean eta merkea. Tfnoa: 79 33 56.
- Haur bizikleta GAC salgai 12-14 urte bitartekoentzat. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.
- Karro denda salgai. Tfnoa: 79 41 68.
- Salgai daude: Pastelentzako kamara-bitrina ia berria. Pastelentzako laba berria. Izozkientzako kamara ia berria. Brontzezko lanpara ederra. Prezio interesgarriak. Tfnoa: 79 23 58 eta 77 00 91

**DENETARIK**

- Egunero goizez Bilbora joan behar dut eta ez daukat autorik. Zeurean lekurik baduzu, deitu 79 32 02 telefonora. Gastuak erdibana. Deitu lehenbailehen.
- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldaketa egingo luke. Interesatuak dei dezatela tfno. honetara: 79 26 59
- Laudioko ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Durango-Arrasate inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldaketa egingo luke. Tfnoa: 94- 681 40 25.
- "El caserio" zarzuelari buruz bideo, disko, partitura eta informazio izanez gero dei ezazu Eresira, telefonoa 79 29 09.
- Gela konpartitu baten ohe bat alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Abuztuaren hasieran Andaluziarantz doan norbaitek kotxean bi lagun eta bi motxilentzat lekurik badu, deitu. Gastuak erdibana. Tfnoak: 79 22 81 edo 79 09 25

**ARRASATEN HILDAKOAK**

Rafael Palma Ruiz  
Uztailaren 12an. 40 urte

Isabel Unzurrunzaga Arratibel  
Uztailaren 13an. 87 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE  
Tfnoa: 77 08 15



## Famauen ahotik

# Arangurendarrak, baserri-lanetik sagardotegire



*Berdura, ogi, txorizo, eta abarretatik...*

Joxepa: Jaixetan Mundruaera jueten oin dala hamaik bat urte hasiko gitzen baiñe bestela plazara beti juen gare gu, baiñe Mundruoko plazara ez. Gu hemen Ziorlan geratu izen gara, berdurie-ta dana Ziorlan saldu izen dou. Gero, urte asko hontan Oñetin. Oñeti gehixau gusetan jat han jente gutxiau egoten gare-ta: berduriar dozenerdi bat egongo gare eta ogixaz bi bakarrik.

Guk danetik saltzen dou: txorixuek pe urtien hamalau-hamabost bat txarri hiltten dituuau, oso osoik txoixotarako, urdintzaki tte dana. Ointxe be hamabi txarri badaz.

*...Sagardaur*

Bixente: Hemen be kanpue geruau ta estuau joiek eta gero honeik kenduskuenien, behoko terrenuok, Kataidekuek, Roneo-ta horreik eiteko, geldittu gitzuan bape terrenoik parik, ta ardixekin be urtenbibe onik ez eta

pentsau gaixuan holako zerbait ipintie hemen. Baiñe, batién autobia dala, bestien bariantie dala,... egon gitzuan Diputaziñuen da esan jozkuen ezetan be ez hasteko, ze hemen, %50a baserrixe bota ingo ete dauen eta. Orduan geratu gitzuan zer ein ez gekixela. Ta gero sortu zuan beste Arientzako baserrixi erostie ta oin hor gazez.

*Baiñe sagardauiek emoten ete jok?*

B: Hemen jentiek zenbat sagardau erango jok, pa? Bajakik sagardau eraten? Neuk etxuut uste hemen hor behaldekero giroik sortuko danik. Zeatik eze hemen jentie jak ikessite, gaiñera, jarritte, eta sagardau baiño ardaue.

Ifiñi, ein bihe joittuau kupel pare bat eta sagardau ekarri kanpotik, Astigarragatik ero gureanetik, eta ifiñi bihe juau zotzetik erateko.

Hemendik kanpora jente asko juaten dok baiñe,...ni sagardotegi askotan egon nok eta esaten justien, "ez dakitzue sagardau eraten, eta hasixeran behintzet kupel bat nehikue dok, baiñe txikixe, e". Eta... lehenau egon zittuan hemen sagardoteixek. Akordetan nok ni Axeixenien zela auen, baiñe...

Gero bestela, asmue jaukau ba baserriko gauzie emoteko, txuletak bakarrik emon biherrien ba etxeko oilaxkue, urdeiazpiko, txorixo... Koziña konplikauetan hasi barik estilo horretako gauzak.

*Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai*

## Zelebrequerixak

— Lehengunian edarra pasau jatan, baina enajuán suerte makala euki.

— Ze pasau jan ba?

— Bentanatik begira nagola etxatak pa urrezko erlojua jausi. Eskerrak aintxintxinka eskilarak jatxi eta lurra jo baiño lehenago harrapau nebana; bestela jota bertan txikitzen dok.

— Bueno hi, gezur hori sartuixok beste bati.

— Eske erlojua bost minutuko atrasuakin jebillan.

■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■

Badakizu, ordurako kuartillotxo bat jota be bai eta hau zala eta bestie zala, kustiñoa da Fernando eta bere lagun bat hasarretu egin ziela burrukan hasi be. Halako baten Fernandok jotén dotsa ekubilkada bat betonduan eta laguna luze lurrera.

Lurrien zeuenak zera esan zotsan Fernandoi begirakuna zorrotzez:

— Hau ez tok hola geldittuko, kabuen zotz!

— Ez, hori haundittuko eingok!

■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■

Txomin joan da Mieleana eta:

— Konke hi izan haizela andriai zarra eta zatarra esan dotsana.

— Bai, eta zer?

— Zorionak mutil, ze ni enok sekula atrebidu holakoik esaten.

*Juan Martin Elexpuru*

**Felipe Arrizabalaga**  
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**APOTZAGAN**

**S. Migel jatetxea**

Egunero arratsaldeko

Zetatik zabalik

Tfnoa: 77 04 94 / 79 83 93





Zuhaitz eguna herriko plazan 1920

**A**mador Portillo de Ibarluzea Zaragozan bizi da. 1918tik 1933ra bitartean Mondragoen bizi izan zen. Arrasate Press jasotzen du astero eta berak bidali digu aste honetako argazkia.

Zuhaitz eguna zen, 1920. urtearen bueltan "artean garrantzi handiko eguna izaten zen, diosku Amadorrek, Eskolako umeok arbolak landatu eta Udalak merienda eman ohi zigun".

Argazkia Herriko Plazan hartu zen. Parean Cafe Universal zela-koa, gaur Kajoi taberna, Herriko

plazaren erdian musika-kioskoa. Umeteriaren erdian, gizon burusoi-la: Inazio Portillo maisua, merkatu ondoan zegoen eskolan. Bost semealaba zituen. Horietatik bi bakarrik bizi dira: Inazio eta Amador, argazki hau bidali diguna, hain zuzen.



**ARANBURU  
COTEMAR**

**Garraio agentzia**



Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

**ALTUNA**

Lurrindegia  
bisutegia  
drogeria


Maalako Errebala  
Tfnoa: 79 14 23




### Hieroglifikoak



Udaberriko ahizpa gorriska



Pasa duzu azterketa



Nolako aldizkaria?



Nola biziko zara?

**Soluzioak:**  
 1. Ge-Re-Ziak: Gerezak  
 2. Do-I, Do-I: Doi-Doi  
 3. Ele-Bi-Duna: Elebiduna  
 4. Aurtan Iaz bezala

ENBIDotik hartua, ELKAR-en baimenarekin

**ELEKTRONIKA  
 ARTIKULUEN  
 SALMENTA**



J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

**Zunbeltz**

Simon Arrieta Enparantza 2,  
BERGARA



## Gripeak jota

# E

txetik hain gertu dugun gripearen muino tontoretik ez dira oso urruti ere ageri tifusaren eta izurriaren mendi berde ilun zaharrak, birikeriaren mendi gorritzat erromantikoa, minbiziaren mendi zabala -guzti errea, hondamendi latz baten islada-, bihotzekoaren mendi zorrotz pikoduna, IHESaren metalezko mendi geometrikoa- bere pendizeetan zehar kimikarien kamioi eta furgonetak mugitzen direlarik- eta beste hainbat eta hainbat mendi. Aurrean, berriz, mendi sail itzelaren atzeko ortzemugan, heriotzaren itsaso zabal barea, beti bezain abegikor, beti bezain hotz eta beldurgarri.

Juan Luis Zabala



**MIKEL LASA**  
ASEGURU ARTEKARITZA

**ASEGURU  
ARTEKARIA**

Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE



■ **Amerikanoak.** Izenburu honekin Willian A. Douglas eta Jon Bilbaok liburu ederra argitaratu zuten Ipar eta Hego Ameriketara joan ziren euskaldunei buruz. "Euskaldunak mundu berrian" zuen azpitu-tulutzat.

Liburu horretan agertzen eta aztertzen den jende asko bizi da oraindik. Egun hauetan Euskadi Irratiko Jose Mari Oterminek Estatu Batuetako Mendebaldean elkarriketatutako euskaldunen elkarriketak entzuteko parada izan dut.

Horietatik bat gogoratzen dut bereziki: Pete Cenarruza, Idahoko estatuko idazkariari egindakoa, hain zuzen. Pete amerikarra da, han jaioa, euskaldunen semea. Bigarren belaunaldiko euskaldun-amerikarra izan arren, ederto gordetzen du euskara, amerikarren soinua darion bizkaiera. Boiseko Kapitolioan egiten du lan, han du bere bulegoa, Idahoko gobernariaren ondoan, eta ikustekoa da halako kargu inportantea duen arren, zein samurra den haren bulegoan sartu eta berba egitea. Estutasunetan zegoen makina bat euskaldun bidaia-iriri laguntza eman dion euskaldunen seme hau, hor ari zen patxada osoz Euskadi Irratian esplikatzeko zergatik zen errepublikarra eta ez Partidu Demokratikokoa -"nire aita ere errepublikarra izan zen eta..."

■ **Delgadore** "zorte txarra" eta **Marinoren balentiria.** Asteburuan Tour-aren bi etapa ikusi ditut telebistan. Lehenengoan Delgadok -deskuido baten ondorioz, antza, eta zenbat doaz?- minutu erdi galdu zuen Lemond eta Brenkinkekin alderantz gero. Harrigarria TVEn nola ari ziren segoviarraren "zorte txarra" behin eta berriro aipatzen, halakoak izan ez balitu sailkapen nagusian nola joango litzatekeen kalkulatu. Noski, kalkulu horietan ez zen sartzen Lemondi erlojuaren kontrako etapan erori zitzaion euri zaparrada - Delgadori ez-, etabar luzea. Badirudi esatariok egurrezko anteojoak daramatzatela.

Marinoren garaipenak poztu egin ninduen eta ni bezala jende gehiago, pentsatzen dut, baina hortik han hemenka festak eta ez dakit zenbat gauza antolatzen direla ikusten dudanean, lotsatu egiten naiz apur bat, Tour-eko etapa bati ez duen garrantzia ematen bait zaio, hau Bananalandia balitz bezala.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **A zein gerla zoragarria:** Richard Attenborough-ek zuzendutako filmea, larunbatean, gaueko 22.10etan. Antzezleak Len Deighton, Laurence Olivier eta John Gielgud.

Pelikula hau guduaren kritika da. Borroka biziekin eta borroka hauek eragiten dutenekin akabatzea eragiten duen balada...

■ **Beyond the Poseidon adventure:** Irwin Allen-en filmea, Igan-dean, bazkalosteko 15.15etan.


Aurreko pelikularen jarraipena da, bizirik geratzen den beste taldean oinarritzen delarik. Istilu izugarriak sortuko dira salbatu direnen artean...

Antzezleak Michael Caine, Sally Field eta Telly Savalas.

■ **The duellist:** Asteazkenean, gaueko 10etan, Ridley Scott-en pelikula. Antzezleak Keith Carradine, Harvey Keitel eta Edward Fox.

Napoleonen garaian gertatzen da pelikula hau. Armand D'Hubert husar zentzudun gaztea behartuta ikusten da Gabriel Feraud izeneko ofizial lagun batekin elkar-erahilketa egitera.

bideoak



Astakiloen abenturak eta kalenturak

Filme honetan, Europako rock talde onena osatzen duten Josexo, Olegario, Patxiku eta Mikel astakiloen ibilerak ikus ditzakegu. Izar bihurtzeko bidean, makina bat ezbehar jasango dituzte.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).





**A**TBren plantilan badugu berritasunik. Irailetik aurrera, **Jabi Ekdua**ien arrasatearra izango da ATBren laugarren teknikaria. Gai-nontzekoek -goi mailako eskubaloian bide berriak urratu nahi dituen Jasone Diaz de Gereñuk ezik-geurekin segituko dute. Jabik ere Andoaingo Bideo Eskolan ikasi du.

a s t e k o

**PROGRAMAZIOA**

**23 ASTELEHENA**

20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua.  
20.20 **Medikua etxean**. Bitor Irigoien eta Arantxa Lizasok aurkeztua. Gaia: uda garaiko gaitzak.  
**Berriak** (errepikaldia)

**24 ASTEARTEA**

12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
12.20 **Medikua etxean** (bezperakoa)

**25 ASTEAZKENA**

20.00 **Berriak**. Aitor Sarasuak aurkeztua  
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Jose Mari Velez de Mendizabalek aurkeztua. Gaia: Karrera bukatu berriak.


**26 OSTEGUNA**

12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

**27 OSTIRALA**

20.00 **Berriak**. Aitor Sarasuak aurkeztua  
20.20 **Erretratoa**. J.R. Elortzak aurkeztua. Gonbidatua: Mikel Otxoa, Errealaren partidu batean elbarritu zena.  
20.50 **Musikantoi**. Mikel, Asier, Pepe eta Patxik egina  
**Berriak** (errepikaldia)

**E**zbeharrak gizon publiko bihurtu du **Mikel Otxoa**. Atotxako futbol zelaian izandako istripuak elbarritu zuen eta izena eman, aldi berean. Hasieran kostauta, gaur egun berriz, ondo moldatzen da telebistaren aurrean adibidez. Ostiralean J.R. Elortzaren Erretratoan ikus dezakezue.



**K**anpoan bizi diren bost mondragoetar, bost, etorri ziren *Zenbat buru, hainbat aburu* programara. Lau Donostian bizi dira eta bestea Gasteizen. Gustora ari izan ziren kontu kontari. Ezkerretik hasita, **Agustin Azkoga**, **Angel Erguin "Arto-rotz"**, **Angeles Zubizarreta**, **Juan Luis Arrieta** eta **Jose Mari Beitia**, **Jose Mari Velez de Mendizabalen** ondoan



**OBRA DIRELA ETA ERDIKO KALEAN GAUDE**

*Mondragonesa Grafikagintza*

**Paperdenda. Mahaigaineko tresnak**



**GALERIA 44**

**OSO GAUZA BEREZIAK**

Zerkaosteta 8





**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Jendea zeure erara erabiltzeko ohitura dauka eta ez zara batere eroso sentituko erabakiak hartzeko gauza den norbaitek egoera horren aurrean hartu beharreko jokabidea zein den esango dizulako.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Oldartasuna, egonarrria eta goiari eusteko gaitasuna izango dira birtuterik nabarmenenak. Gainera lanerako izugarritzko gaitasuna izango duzu.




**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Zentzua garatzeko aste aproposa, burua argi-argi izango duzu eta berehala zeureganatuko duzu edozer. Ahalmen hau praktikan jartzeko aukera izanez gero, arrakasta izatea suerta liteke.



**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Sentibera, eta bihotz zabala izango zara besteekin, norbera ere aintzat hartua izateak zenbat balio duen dakizulako. Erromantiko ibiliko zara baina jeloskor jokatu duzu lagunarekin.




**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Dogmatikoa eta egoskorra zara gizalegez, zeure burua torpe eta lelotzat daukazu aspaldian horregatik. Benetan nahi duzuna zer den jakiten saia zaitetz eta egin egingo zara.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Lasai azalduko zara besteen aurrean, hala ere badaukazu zure bamean egonezina sortzen dizun arduraren bat, saia zaitetz kezka hori norbaiti azaltzen eta bamelasaitasuna lortuko duzu.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Besteekiko tirabirak zer diren ahaztuko duen norbait bada, zeu zara. Harmonian pasako dituzue datozen egunak, halere baliteke gehiegizkoa izatea eta aspergarri bihurtzea. Jarrioz pipermin piska bat egingo duzue guztiari.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaoroaren 22ra

Eman zizuten heziketak aldaketa nabarmena izan du zure bizimodua aurrera joan den heinean. Edozertara moldatu izan zara eta orain ere berdind segitzen duzu.



**SAGITARIUS**  
Azaoroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Jator portatuko zara ingurukoekin eta galduta zeneuzkan puntu horiek berriz ere irabazi egingo dituzue. Ez da oraingoa lanbidez aldatzeko momenturik aproposa, porrot egiteko arriskua egon liteke.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Anbiziosoa zara eta besteek zuek egindakoa txalotzea izango da benetan esperoko duzuna. Arrakasta ziurtatuta daukazu Capri. Laguna eta bion arteko tirabira horretan zeuk izan beharko duzue etsi beharko duena.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Kontraesanen bat izango duzue zure bamean egitera zoazen ekintza hori dela eta, jarrai ezazu zure gizalegea ostikadak jasotzen ohitua bait zaudete.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Ez zabilzta batere gustora egin behar berri horretan; osasun egoera txarraren ondorioa baino ez da. Saia zaitetz jatordu garbiagoak egiten.



## ARRASATEko UDALA

### EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasten ari diren arrasatearrentzat beka ematen ditu. Argibide gehiagorako dei 79 09 00 telefonora, edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Arrasaten, 1990eko ekainaren 15ean



Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien  
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA  
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS  
MUNICIPAL





# HIRI ETA ESTATU BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

**ALBACETE**, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveja**, Avd. Diego Ramírez, 223. Ecucenter, T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. C/Al. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOS**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Merida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edisson, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Camí d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonquera**, Jonquera, 2 - **Mercurio**, Via Augusta, 59 - **Nervión**, Via Layetana, 20 - **Windsor**, Via Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umberto, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetano Ventullo, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4. Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Plza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genis Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafraanca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comunerros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-62 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Vall de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUÑA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuyet Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge Maria, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárraga**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Meilán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubuilding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - Nº 3. Sor. Angela de la Cruz, 24 - Nº 4, Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº Castellana, 51 - **División Internacional**: Caslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25.8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Gelata**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L.3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Mellilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparil, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascasles, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya, T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Perlera, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Diaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Villagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celestino, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G.C. Loc. 10 - T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposta**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D. 8. T. 974-6085 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandia**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

## BIDALKETAK

- HIRI BARNEKO ZERBITZUA
- \* Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)
- \* Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)
- ESTATU BARNEKO ZERBITZUA
- \* Gau eta egun
- NAZIOARTEKO ZERBITZUA
- \* Courier zerbitzua
- \* Aire-karga zerbitzua
- \* Itzulpen zerbitzua

### ARRASATE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

### EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

### AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

### DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

**INFORMAZIOA**  
**900 300 400**



-ko kide



-ko kide